

BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALA MODERNIZATZEKO ZUZENDARIAREKIN BILERA

Astearte honetan, hilak 12, sindikatuok Bulego Judizial eta Fiskala Modernizatzeko Zuzendariak deituak izan gara, Arabako Langileen Batzordeak eskatuta. Amparo López zuzendaria ez ezik, arkitektura proiektuez arduratutako teknikaria, prebentzio teknikari bat eta Isabel Gabriel Jutzizia Administrazioako Zuzendaria ere bertaratu dira. Jorratu beharreko gaiak, Gasteizko Jutzizia Jauregiaren gainekoak zirenak, honakoak izan dira:

- **Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia lekuz aldatzea.** Kontrataziorako hurratsei ekin dietela jakinarazi digute Saisetik. Kokapen berrirako arrazoia segurtasun kontu batean datza eta, bide batez esanda, Europako araua bete beharrean. Aipaturiko aldaketak, epaitegi honetan tramitatzen diren prozeduretan **gataskan dauden bi aldean banaketa bermatuko luke.**
- **5. Solairuko lokalen egokitzapena, non Betearazpeneko Zerbitzu Prozesal Erkidea (Zibil, Merkataritza eta Administrazioarekiko Auzia atalak) kokatzen den.** Berria ez den eskakizun bat da, gune hauen berrikuspena behin baino gehiagotan eskatu baitugu; zer esanik ez bertan lan egiten duten kideen osasunerako gune egokirik ez dela edota argiztapen gutxi dagoela. Sailak **2018ko hasierarako kontratazio prozesuari ekiteko konpromezua** hartu du.
- **1. ZULUP Penalaren lanpostu baten kokapenaren aldatzea,** izan ere, gaur egun hiru lanpostuetako bat zutabe batez gainontzeko lankideengandik isolaturik dago. Proposamena, lankideek onetsita, **arkitektoak nahiz prebentzio teknikariak eginezintzat jo dute.** Biek ala biek lanpostu hori birkokatuz gero egungo igarobideak ez zirela errespetatuko deritzote. Ez dugu ulertzen zergatik sailak jarraitzen duen eskaera honi ezetz esaten. Orain gune horretan, non aipatutako lanpostua kokatzeko eskatzen dugun, sinadurarako mahai bat dago. Gunea berrantolatzeko kontua baino ez da, hots, teknikari arduradunen borondate kontua. Gai honi heldzen eta borrokatzen jarraituko diogu, bideragarri eta lankideentzako onuragarri iruditzen baitzaigu.
- **Merkataritzako ZULUP-a kokatzen den gunearen berrikustea.** Saisetik esparru hori **hobetzeko dauden aukerak aztertuko dituztela** helarazi zaigu.
- Honez guztiaz gain, zuzendariari aintzinako aldarrikapenak birgogoratzeko aprobetxatu dugu, jauregiko argiztapen eskasa edota moketa desagertaraztea osasunarentzako kaltegarria dela eta.

Urriaren 19an Epaile Dekanoa eta Idazkari Koordinatzailea ere joango diren beste bilera bat deitu da, non azaldu ditugun gaien inguruko berrikuntzez informatuko zaigu.

Gasteiz, 2017/09/13